Horregatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT

Lehenengoa. Alegría-Dulantziko arau subsidiarioen AL-27 plan partzialaren espedientea behin betiko onartzea aldaketa hauekin:

I.- Sektoreko aparkaleku kopurua berriro kalkulatuko da. Horretarako kontuan hartuko da merkataritzarako gune pribaturako 130 aparkaleku behar direla.

II.- Plan partzialak bat etorri beharko du, bai agiri grafikoetan, bai idatzizkoetan, plan partzial hau osatzen duten antolamendu orokorreko agirian jasotako erabilera sailkapenarekin eta kalifikazio zehatzaren sistematizazioarekin, hau da, Alegría-Dulantziko udal planeamenduaren arau subsidiarioekin.

Bigarrena.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, berriro ere jendaurrean jarri gabe, espedientea zuzenean igorriko zaio foru aldundiari, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena.- Foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Aukeran, eta aipatutako errekurtsoa jarri aurretik, berraztertzeko errekurtsoa ebazpena eman duen organoaren aurrean, hura jakinarazi edo argitaratu ondorengo hilabetearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abuztuaren 21a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Plan Parcial AL-27 de las Normas Subsidiarias de Alegría-Dulantzi, con las siguientes modificaciones:

I.- Recalcular el número de aparcamientos del sector, teniendo en cuenta que, para el edificio de equipamiento privado comercial son necesarias 130 plazas.

II.- Adaptar el Plan Parcial, tanto en sus documentos gráficos como en los escritos, a la clasificación de usos y a la sistematización de la calificación pormenorizada con la que se ha redactado el documento de ordenación general que sirve de marco al presente plan parcial, es decir las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Alegría-Dulantzi.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Alava.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 21 de agosto de 2008.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

5675

**534/2008 FORU AGINDUA, abuztuaren 21ekoa. Honen bidez, Alegría-Dulantziko arau subsidiarioen AL-23 plan partzialaren espedientea behin betiko onartzen da.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2008ko uztailaren 8an Alegría-Dulantziko Udalak bidalitako ofizioa (sarrera erregistroko zenbakia: 12.172) jaso zen. Ofizio horren bidez, Udalak AL-23 plan partzialaren espedientea bidali zion aldundiari, hala bazegokion, behin betiko onarpena eman ziezaion.

Bigarrena.- Espedienteko agiriak aztertuta, ondokoak ondorioztatzen dira horiek izapidetzean:

A) Udalbatzak, 2008ko maiatzaren 20ko osoko bilkuran, plan partzialari hasierako onarpena ematea eta plan partzial hori hogei egunez jendaurrean jartzea erabaki zuen. Azken horretarako iragarki bana argitaratu zuen Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (60 zenbakia. 2008ko maiatzaren 28a), El Correo egunkarian (2008ko maiatzaren 28a) eta udal iragarki taulan.

B) Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalbatzak 2008ko uztailaren 3ko ohiko osoko bilkuran behinbehineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena.- Diputatu nagusiaren abuztuaren 8ko 186/2007 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, behin betiko onarpena eman ala ez Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuari dagokio, plan partziala aztertu eta espedienteak jendaurrean arauzko epea bete ondoren.

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

5675

**ORDEN FORAL 534/2008, de 21 de agosto, de Aprobación definitiva del expediente del Plan Parcial AL-23 de las Normas Subsidiarias de Alegría-Dulantzi.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- En fecha 8 de julio de 2008 y número de registro de entrada 12.172 se recibió un oficio del Ayuntamiento de Alegría-Dulantzi remitiendo el expediente del Plan Parcial A-23, con el fin de que le fuera concedida la aprobación definitiva si procediera.

Segundo.- Del examen de los documentos que componen el expediente, se desprenden los siguientes hechos fundamentales en su tramitación:

A) En sesión de fecha 20 de mayo de 2008, se acordó aprobar inicialmente el Plan Parcial y someterlo a información pública por el plazo de veinte días, haciéndose efectiva mediante la inserción de los respectivos anuncios en el BOTHA núm. 60, de 28 de mayo de 2008, en el periódico El Correo de 28 de mayo de 2008 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

B) Dentro del plazo de exposición pública no fue presentada alegación alguna por lo que el Ayuntamiento, en sesión ordinaria del día 3 de julio de 2008 procedió a la aprobación provisional del expediente.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el Decreto del Diputado General número 186/2007, de 8 de agosto, la aprobación definitiva, si procediere, corresponde al Diputado titular del Departamento de Administración Local y Equilibrio Territorial, a la vista del documento del Plan Parcial y del resultado de su exposición pública durante el plazo legal.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Alegría-Dulantziko udal planeamenduaren arau subsidiarioetan eta aplikagarri duen legedian –hirigintzakoa nahiz sektorekoa– oinarrituta plan partziala aztertuta, honakoak jakinarazten dira:

AL-23 sektoreko bizitegitarako plan partzialak 58.615,35 metro koadroko area antolatzen du zehatz-mehatz. Area horretan planak, gehienez, 230 etxebizitza egitea baimentzen du. Horietatik 35, gutxienez, prezio tasatukoak izango dira, eta beste 46, gutxienez, babes ofizialekoak, halaxe xedatzen baitu Alegría-Dulantziko Loiza bizitegitarako areako AL-23 sektoreari buruzko araudiak 2.1.2.2 artikuluak. Gainerakoak etxebizitza libreak izango dira.

Horrez gain, 4.917 metro koadro ekipo pribatuetarako erabiliko dira. Metro koadro horiek bizitegitarako 4 zenbakiko lurzatiko (14.523,25 $m^2$) etxeetako behe solairuetan eraikiko dira. Horiek horrela, 31.850 metro koadro dira plan partzialak irabazizko erabileretarako onartutako gehieneko eraikigarritasuna. Azalera hori eta arau subsidiarioetan zahartutakoa bat datoz.

Bigarrena.- Alegría-Dulantziko udal planeamenduaren arau subsidiarioetan eta aplikagarri duen legedian –hirigintzakoa nahiz sektorekoa– oinarrituta plan partziala aztertuta, adierazi behar da plan partzial hori AL-23 sektorea garatzeko idatzi dela. Hau da, planak arauek mugatu diotenetik harago doan eremua antolatzen du; beraz, Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak egindako txostenarekin bat etorriz, agiri teknikoak zuzendu egingo dira arauek mugatu diotenetik harago doan eremua espedientetik kentze aldera.

Hirugarrena.- Plan partzialaren alderdi formala eta kontzeptuala dela-eta plan horrek bat etorri beharko du, bai agiri grafikoetan, bai idatzizkoetan, plan partzial hau osatzen duten antolamendu orokorreko agirian jasotako erabilera sailkapenarekin eta kalifikazio zehatzaren sistematizazioarekin, hau da, Alegría-Dulantziko udal planeamenduaren arau subsidiarioekin.

Laugarrena.- Arau subsidiarioetan merkataritza erabileretarako haztapen koefizientea aipatu ez denez gero, plan partzialean adieraziko da, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/06 Legearen 56.1.f) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Bosgarrena.- Arabako Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak egindako txostena –foru agindu honekin batera aurkezten da– dela-eta, espedienteak txosten horretan aipatutako aldaketak jasoko ditu. Hona hemen aldaketa nabarmenenak:

A.- Bigarren oinarrian adierazitakoa.

B.- A-3140 errepidearekiko elkargunearen, “Alegría Este” izenekoaren, eragin zonaren plan partzialak hartu beharreko mugak zuzentzea plano erantsian adierazitakoaren arabera. Era berean, elkargunearen egungo kokapena jasoko da, jaso ere plano erantsian adierazitako eran.

C.- A-3110 errepide zaharraren alboko aparkalekuak kenduko dira, errepide horren titulartasuna mugatuko duen sekziotik ez hirurogei metro baino gutxiagoko bide tartean. Tarte horretan errepide zaharrerako sarrera zuzenak eta beste zernahi bidegurutze edo lotura, zebra-bide edo bidegorri… ere kendu egin beharko dira.

D.- Zaratari buruzko azterketa egingo da, A-3140 errepidea dela-eta zarata kutsadura handia badago, zarataren aurkako babesak jar daitezen. Alegría-Dulantziko Udalak, espedientearen sustatzaile eta antolatzaile den aldetik, babes horiek nork ordainduko dituen arautuko du: eremuaren sustatzaileek, beste urbanizazio karga bat gisa, edo udalak berak. Nolanahi ere, eta bidearen jabe den arren, ezin izango zaio aldundiari eskatu babes horiek jartzea, zeren ez baitu administrazio horrek bizitegi garapenaren hazkundea bere eskumenpeko biderantz sustatzen.

Horregatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- Una vez analizado el documento a la luz de las Normas Subsidiarias de planeamiento de Alegría-Dulantzi, así como de la legislación aplicable, tanto urbanística como de tipo sectorial, es necesario indicar lo siguiente:

El plan parcial residencial para el Sector AL-23, ordena pormenorizadamente un área de 58.615,35 $m^2$ y prevé la ubicación de un número máximo de 230 viviendas. De éstas, un mínimo de 35 serán de precio tasado y un mínimo de 46 de protección oficial, según el artículo 2.1.2.2 “Normas particular del AL-23, Área residencial Loiza de Alegría-Dulantzi”, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Alegría Dulantzi, siendo el resto de viviendas, de promoción libre.

Además, se prevén 4.917 $m^2$ de equipamiento privado, a ubicar en las plantas bajas de los bloques de viviendas de la parcela residencial número 4, de 14.523,25 $m^2$ de superficie. Por tanto, la edificabilidad máxima detallada en el Plan Parcial destinada a usos lucrativos es de 31.850 $m^2$ que coincide con la establecida en las NNSS.

Segundo.- Una vez analizado el documento a la luz de las Normas Subsidiarias de planeamiento de Alegría-Dulantzi, así como de la legislación aplicable, tanto urbanística como de tipo sectorial, es necesario indicar que se trata de un Plan Parcial redactado para el desarrollo del Sector AL-23, previsto en las citadas Normas. A este respecto es necesario indicar que el Plan aporta una ordenación que excede del ámbito que las Normas le han delimitado; por tanto, y en consonancia con el informe emitido por la Dirección de Obras Públicas y Transportes, la documentación técnica deberá corregirse con el objeto de excluir del expediente toda la ordenación exterior al sector definido por las Normas Subsidiarias.

Tercero.- En relación con el aspecto formal y conceptual del proyecto de Plan Parcial, es necesario indicar la obligación de éste de adaptarse, tanto en sus documentos gráficos como en los escritos, a la clasificación de usos y a la sistematización de la calificación pormenorizada con la que se ha redactado el documento de ordenación general que sirve de marco al presente plan parcial, es decir las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Alegría-Dulantzi.

Cuarto.- Dado que no ha sido incorporado a las Normas subsidiarias, en atención a lo indicado en el artículo 56.1.f) de la Ley 2/06, de Suelo y Urbanismo, el Plan Parcial deberá señalar el coeficiente de ponderación utilizado para el uso comercial.

Quinto.- En relación con el informe emitido por la Dirección de Obras Públicas y Transportes de la Diputación Foral de Alava, que se adjunta a la presente resolución, el expediente deberá incorporar las modificaciones que en él se indican entre las que son de destacar:

A.- La descrita en el Fundamento Segundo anterior.

B.- Corregir la delimitación del ámbito del Plan Parcial en la zona de influencia de la denominada intersección “Alegría Este” recientemente construida con la carretera A-3140, según se indica en el plano adjunto. Asimismo, debe reflejarse la situación actual de dicha intersección, tal y como figura igualmente en el plano adjunto.

C.- Eliminar los aparcamientos junto a la antigua carretera A-3110 en un tramo no inferior a sesenta metros (60 m.) medidos a partir de la sección que delimitará el cambio de titularidad de dicho vial, tal y como se indica en el plano adjunto. En ese mismo tramo deberán eliminarse, igualmente, tanto los accesos directos a dicha antigua carretera, como cualquier tipo de cruce o conexión (pasos de cebra, bici-carril, etc...).

D.- Realizar un estudio fónico para determinar si es preciso disponer elementos de protección contra la contaminación acústica respecto a la carretera A-3140. Asimismo, el Ayuntamiento de Alegría-Dulantzi, como impulsor y planificador de los desarrollos previstos, establecerá si dichos elementos de protección deben ser costeados por los promotores de los ámbitos afectados por esta medida, como carga de urbanización de los mismos, o por el propio Ayuntamiento, ya que en ningún caso podrá exigirse a esta Diputación Foral, como titular de la citada vía, el establecimiento de dichas pantallas, pues no es esta Administración la que promueve el crecimiento del desarrollo residencial hacia los límites de la vía de su titularidad.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

XEDATU DUT

Lehenengoa. Alegría-Dulantziko arau subsidiarioen AL-23 plan partzialaren espedientea behin betiko onartzea aldaketa hauekin:

I.- Plan partzialetik ateratzea sektorearen eremutik kanpo proposatutako antolamendu oro.

II.- Plan partzialak bat etorri beharko du, bai agiri grafikoetan, bai idatzizkoetan, plan partzial hau osatzen duten antolamendu orokorreko agirian jasotako erabilera sailkapenarekin eta kalifikazio zehatzaren sistematizazioarekin, hau da, Alegría-Dulantziko udal planeamenduaren arau subsidiarioekin.

III.- Merkataritza erabileretarako haztapen koefizientea adieraztea.

IV.- Arabako Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak egindako txostena dela-eta, espedienteak txosten horretan aipatutako aldaketak jasoko ditu. Hona hemen aldaketa nabarmenenak:

A.- A-3140 errepidearekiko elkargunearen, "Alegría Este" izenekoaren, eragin zonaren plan partzialak hartu beharreko mugak zuzentzea plano erantsian adierazitakoaren arabera.

B.- A-3110 errepide zaharraren alboko aparkalekuak kenduko dira, errepide horren titulartasuna mugatuko duen sekziotik ez hirurogei metro baino gutxiagoko bide tartean. Tarte horretan errepide zaharrerako sarrera zuzenak eta beste zernahi bidegurutze edo lotura, zebra-bide edo bidegorri… ere kendu egin beharko dira.

C.- Zaratari buruzko azterketa egingo da, A-3140 errepidea dela-eta zarata kutsadura handia badago, zarataren aurkako babesak jar daitezen.

Bigarrena.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, berriro ere jendaurrean jarri gabe, espedientea zuzenean igorriko zaio foru aldundiari, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abuztuaren 21a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Plan Parcial AL-23 de las Normas Subsidiarias de Alegría-Dulantzi, con las siguientes modificaciones:

I.- Excluir del Plan Parcial toda la ordenación propuesta exterior al ámbito del Sector.

II.- Adaptar el Plan Parcial, tanto en sus documentos gráficos como en los escritos, a la clasificación de usos y a la sistematización de la calificación pormenorizada con la que se ha redactado el documento de ordenación general que sirve de marco al presente plan parcial, es decir las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Alegría-Dulantzi.

III.- Señalar el coeficiente de ponderación utilizado para el uso comercial.

IV.- En relación con el informe emitido por la Dirección de Obras Públicas y Transportes de la Diputación Foral de Alava, el expediente deberá incorporar las modificaciones que en él se indican entre las que son de destacar:

A.- Corregir la delimitación del ámbito del Plan Parcial en la zona de influencia de la denominada intersección "Alegría Este" recientemente construida con la carretera A-3140, según se indica en el plano adjunto.

B.- Eliminar los aparcamientos junto a la antigua carretera A-3110 en un tramo no inferior a sesenta metros (60 m.) medidos a partir de la sección que delimitará el cambio de titularidad de dicho vial, tal y como se indica en el plano adjunto. En ese mismo tramo deberán eliminarse, igualmente, tanto los accesos directos a dicha antigua carretera, como cualquier tipo de cruce o conexión (pasos de cebra, bici-carril, etc...).

C.- Realizar un estudio fónico para determinar si es preciso disponer elementos de protección contra la contaminación acústica respecto a la carretera A-3140.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Alava.

Vitoria-Gasteiz, 21 de agosto de 2008.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

5676

**535/2008 FORU AGINDUA, abuztuaren 21ekoa. Honen bidez, Alegría-Dulantziko arau subsidiarioen AL-26 plan partzialaren espedientea behin betiko onartzen da.**

Lehenengoa.- 2008ko uztailaren 8an Alegría-Dulantziko Udalak bidalitako ofizioa (sarrera erregistroko zenbakia: 12.173) jaso zen. Ofizio horren bidez, Udalak AL-26 plan partzialaren espedientea bidali zion aldundiari, hala bazegokion, behin betiko onarpena eman ziezaion.

Bigarrena.- Espedienteko agiriak aztertuta, ondokoak ondorioztatzen dira horiek izapidetzean:

A) Udalbatzak, 2008ko maiatzaren 20ko osoko bilkuran, plan partzialari hasierako onarpena ematea eta plan partzial hori hogei egunez jendaurrean jartzea erabaki zuen. Azken horretarako iragarki bana argitaratu zuen Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (60 zenbakia. 2008ko maiatzaren 28a), Gara egunkarian (2008ko maiatzaren 28a) eta udal iragarki taulan.

B) Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalbatzak 2008ko ekainaren 5eko ohiko osoko bilkuran behinbehineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena.- Diputatu nagusiaren abuztuaren 8ko 186/2007 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, behin betiko onarpena eman

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

5676

**ORDEN FORAL 535/2008, de 21 de agosto, de Aprobación definitiva del expediente del Plan Parcial AL-26 de las Normas Subsidiarias de Alegría-Dulantzi.**

Primero.- En fecha 8 de julio de 2008 y número de registro de entrada 12.173 se recibió un oficio del Ayuntamiento de Alegría-Dulantzi remitiendo el expediente del Plan Parcial A-26, con el fin de que le fuera concedida la aprobación definitiva si procediera.

Segundo.- Del examen de los documentos que componen el expediente, se desprenden los siguientes hechos fundamentales en su tramitación:

A) En sesión de fecha 20 de mayo de 2008, se acordó aprobar inicialmente el Plan Parcial y someterlo a información pública por el plazo de veinte días, haciéndose efectiva mediante la inserción de los respectivos anuncios en el BOTHA núm. 60, de 28 de mayo de 2008, en el periódico Gara de 28 de mayo de 2008 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

B) Dentro del plazo de exposición pública no fue presentada alegación alguna por lo que el Ayuntamiento, en sesión ordinaria del día 5 de junio de 2008 procedió a la aprobación provisional del expediente.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el Decreto del Diputado General número 186/2007, de 8 de agosto, la aprobación